# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA**

**635**

30/1993 DEKRETUA, otsailaren 23koa, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saila desagertarazi eta bere egitekoak eta ekintza-eremua banatzen dituena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.c) atalean ematen zaizkidan eskuduntzez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saila desagertaraztea.

*2. atala.*– Ogasun eta Finantza Sailak eta Hirigintza eta Etxebizitza Sailak, Ekonomia eta Ogasun Saila eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila izenak izango dituzte aurrerantzean hurrenez-hurren.

*3. atala.*– 1. Honako egiteko hauek eta ekintza-eremu hau izendatzen zaio Ekonomia eta Ogasun Sailari:

a) Plangintza ekonomikoa.
b) Ekonomi azterlan eta metodoak. Ekonomi egoera eta aurrikuspenak.
c) Estatistika.

2. Desagertu den Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saileko Ekonomi Sailordetza eta Ekonomi Plangintza Sailordetza Sail honi atxikita gelditzen dira.

3. Ekonomi eta Ogasun Sailari atxikitzen zaio, Administrazio-Erakunde Autonomoa den Euskal Estatistika Erakundea.

*4. atala.*– 1. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, Ingurugiroari buruzko egitekoak eta ekintza-eremua izendatzen zaizkio.

2. Ingurugiro Sailordetza eta ezabatu den Ekonomi, Plangintza eta Ingurugiro Sailari atxikita dauden Lurralde Ordezkaritzak aipatu den Sail honi atxikita gelditzen dira.

3. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxikita gelditzen da «Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, S.A.» (Ingurugiro Hobekuntza-Mejora dem Medio Ambiente) izeneko Baltzu Anonimo Publikoa.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Ezabatu den Ekonomi, Plangintza eta Ingurugiro Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako unitate administratiboak eta langile eta material mailako baliabideak, Ekonomia eta Ogasun Sailari eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxikiko zaizkie, dekretu honetan ezartzen denaren ondorioz Sail bakoitzak bereganatu ditzan egitekoen bolumena kontutan hartuz.

**PRESIDENCIA**

**635**

DECRETO 30/1993, de 23 de febrero, por el que se extingue el Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente y se reasignan sus funciones y áreas de actuación.

En vitud de las facultades que me atribuye el artículo 8.c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se extingue el Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente.

*Artículo 2.*– Los Departamentos de Hacienda y Finanzas y de Urbanismo y Vivienda, pasarán a denominarse de Economía y Hacienda y de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, respectivamente.

*Artículo 3.*– 1. Se asignan al Departamento de Economía y Hacienda las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Planificación económica.
b) Estudios y métodos económicos. Coyuntura y previsión económica.
c) Estadística.

2. Se integrarán en dicho Departamento las Viceconsejerías de Economía y de Planificación Económica del extinto Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente.

3. Se adscribe al Departamento de Economía y Hacienda el Organismo Autónomo Administrativo Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

*Artículo 4.*– 1. Se asignan al Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente las funciones y el área de actuación de Medio Ambiente.

2. Se integran en el citado Departamento la Viceconsejería de Medio Ambiente así como las Delegaciones Territoriales dependientes del extinto Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente.

3. Se adscribe al Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente la Sociedad Anónima Pública «Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, S.A.» (Ingurugiro Hobekuntza-Mejora del Medio Ambiente).

DISPOSICION ADICIONAL

Las unidades administrativas y los medios personales y materiales de la Dirección de Servicios del extinto Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, se adscribirán a los Departamentos de Economía y Hacienda y de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente en razón del volumen de funciones asumido por cada uno de ellos como consecuencia de lo dispuesto en el presente Decreto.

INDARGABETZE XEDAPENA

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko Sailak sortu, kendu eta aldatzen dituen eta Sailen egitekoak eta ekintza-eremuak finkatzen dituen urriaren 2ko 525/1991 Dekretuko 2. j) atala eta 15. atala indargabetuta gelditzen dira.

LEHENENGO AZKEN XEDAPENA

Ekonomi eta Ogasun Saileko eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko lanpostuen egitura organikoak, Dekretu honetan ezartzen denari egokitu beharko zaizkio, dekretu hau indarrean jarri dadin egunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan.

BIGARREN AZKEN XEDAPENA

Ekonomi eta Ogasun Sailburuak onartuko ditu dekretu honetan ezartzen dena betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak.

HIRUGARREN AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko otsailak 23.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogados los artículos 2 j) y el artículo 15 del Decreto 525/1991, de 2 de octubre, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

En el plazo de un mes desde la entrada en vigor del presente Decreto, se procederá a la adecuación de las estructuras orgánicas y de las relaciones de puestos de los Departamentos de Economía y Hacienda y de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente a lo dispuesto en el mismo.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

Por el Consejero de Economía y Hacienda se aprobarán las modificaciones presupuestarias precisas para la ejecución del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL TERCERA

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

**LEHENDAKARITZA**

**636**

29/1993 DEKRETUA, otsailaren 23koa, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburua den Jon Larrinaga Apraiz jaunaren kargu-uztea formalizatzen duena.

Autonomi Estatutuko 33.2 atalean eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.b) eta 24.c) ataletan ezartzen denaren arabera, eta Jon Larrinaga Apraiz jaunak dimisioa aurkeztu izanaren ondorioz,

Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburu izateari utz diezaiola deklaratzen dut, Euskal Autonomi Elkartearen alde burutu duen lanagatik eskerrak emanez.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko otsailak 23.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

**PRESIDENCIA**

**636**

DECRETO 29/1993, de 23 de febrero, por el que se formaliza el cese del Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente, D. Jon Larrínaga Apraiz.

En virtud de lo dispuesto en los artículos 33.2 del Estatuto de Autonomía y en los artículos 8.b) y 24.c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y como consecuencia de la dimisión presentada por D. Jon Larrínaga Apraiz,

Vengo en declarar su cese como Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente, agradeciéndole la labor realizada al servicio de Euskadi.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.